

**Komunikazio, Kultura eta Garapenerako
Nazioarteko 3. Topaketa
"Gizakia izatea", Gizateriaren erretratu kolektiboa
Bizkaia aretoa UPV/EHU (Abandoibarra etorbidea, 3)
2012ko martxoaren 5etik 8ra bitartean**

Kultura giza ezagueraren funtsezko oinarria da. Eredu hori behar bezala landu ezean, ez dago esaterik inon garapen onik egin denik. Giza sormenaren bide nagusia izateaz gain, komunikazioa kulturak aberastea dakarten harremanen lanabesa ere bada.

Duela 25 urte, Australiako zinegile batek Kenyako emakumezko nekazari batekin egin zuen topo eta argazki bat atera zion. Zinegileak orduan barkamena eskatu zion emakumeari, argazkia ateratzeagatik, eta hark hauxe esan zion: «Ez daukazu zertan barkamenik eskatu; nik ezagutzen zaitut». «Nondik ezagutzen nauzu, baina?», harritu zen gizona. «Zu gizakia zara, ni bezala —esan zion emakumeak—, eta gu biok batzen gaituena asko da, eta bereizten gaituena, erabat interesgarria».

Gizakiaren lehen beharizana **Mantenua** da, hau da, jakiak, ura eta bizitokia: «Nik ez dut inoiz zure jakirik dastatu, baina jan nitzake.»

Gizakiaren bigarren beharizana **Maitasuna** da: «Gizakiok senideak, adiskideak eta auzokoak behar ditugu.»

Gizakiaren hirugarren beharizana **Kultura** da: «Amonari entzun eta ikasitako ipuinak kontatzen dizkiet ene bilobei, nor diren jakin dezaten.»

Gizaki guztiok batzen gaituen laugarren gauza **Fedea** da: «Berdin dio zertan, baina gizaki guztiok sinesten dugu zerbaitetan. Baliorik izan ezean, gizatasuna galtzen dugu.»

Gizaki guztiok batzen gaituen bosgarren ezaugarria **Beldurra** da: «Gizakiak izango bagara, zapalkuntzatik askatu behar dugu. Beldurrak eusteko kemena ematen digu.»

«Zein da seigarren beharizana?», galdetu zuen zinegileak. «Gizakiak izateko, **Itxaropena** behar dugu. Etorbizunik gabe, bizitzak ez du zentzurik.»

Orduan ereindako hazia mende laurden geroago ernatu da "Gizakia izatea" deritzan dokumentalaren bidez. Dokumental hau batera landu dute Kubako San Antonio de los Bañosko Nazioarteko Zine eta Telebista Eskolak eta mundu zabaleko beste zazpi zine eskolak. Egitasmo honek hasieratik beretik UNESCOren Amerika Latinoa eta Karibeko Kultura Sustatzeko Lurralde Bulegoaren eta KCD Kultura Communication y Desarrollo GGKEaren laguntza jaso du.

Bilbon antolatu dugun Kultura, Komunikazio eta Garapenerako Nazioarteko 3. Topaketak elkarren artean esperientziak trukatzeko eta elkarrekin gogoeta egiteko bidea eskainiko die "Gizakia izatea" garapenerako komunikazio egitasmoan partaide izan diren guztiei eta egitasmoaren jarraipena bultzatu nahi duten lagunei eta erakundeei. Era berean, "Gizakia izatea" dokumentalaren eta "Begiratzen ikasi" bideo dokumentalaren lantegiaren emanaldiak egingo dira.

Egitaraua

2012ko martxoaren 5etik 8ra bitartean

Martxoak 5, astelehena

16,00 Hasiera ekitaldia

• **Juan Carlos Vázquez / Nerea Uriarte**

KCD Kultura, Communication y Desarrollo erakundea

• **Carmelo Garitaonandia Granacho**

UPV/EHUko Bizkaiko Campusaren errektoreordea.

• Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia

• Eusko Jaurlaritza

16:30 *"Gizakia izatea" Garapenerako Komunikazio Egitasmoaren esperientzia*

• **Tanya Valette**

"Gizakia izatea" lanaren ekoizle kudeatzailea (Dominikar Errepublika)

• **Russell Porter**

Kubako San Antonio de los Bañosko Zine eta Telebista Eskolaren Dokumentalen arloko katedraren zuzendaria eta "Gizakia izatea" lanaren sorkuntza zuzendaria (Australia)

17:30-19:00 Mahai ingurua

Dokumentalaren eginkizuna garapenerako lanabes gisa krisian murgilduriko mundu batean

• **Lola Mayo**

Dokumentalista eta "Gizakia izatea" lanean Madrilgo Rastroari dagokion atalaren koordinatzailea (Madril, Espainia)

• **Antonio Tibaldi**

Dokumentalista eta "Gizakia izatea" lanean Harlemi dagokion atalaren koordinatzailea (New York, AEB)

• **Rebecca Flores**

"Gizakia izatea" lanean Little Petrari dagokion atalaren koordinatzailea (Jordania)

Moderatzailea

• **Gabriel Villota**

UPV/EHUko Unibertsitate Hedakuntza sailaren zuzendaria

19:30 *"Gizakia izatea" lan sortaren "Kultura" dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia. Euskeraz*

Kafe Antzokia (Done Bikendi, 2, Bilbo) SARRERA DOHAIN

Martxoak 6, asteartea

09:00 Generoa eta komunikazioa

• **María Silvestre**

EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria

09:45 Kultura eta komunikazioa

• **Maidar Maraña**

UNESCO Etxearen Garapenerako Kulturaren arduraduna

10:30 Atsedenaldia

11:00 Komunikazioa eta garapena

• **Juan Carlos Vázquez**

11:45 Komunikazio arloko lana jatorrizko herrien garapenari begira

• **Guillermo Monteforte**

Ojo de Agua Indigenen komunikazioa (Oaxaca, Mexiko)

12:15 Erdialdeko Amerikako herri mugimenduetan komunikatzaileak trebatzea

• **Félix Zurita**

Luciérnaga Fundazioa (Nikaragua)

12:45 Dokumentalak egiteko gaitasunen garapena

• **Carolina Coppel**

Ambulante Más Allá (Mexikoko hego-ekialdea)

13:15 Ikus-entzunezko eskolen prozesuak: Bogotako gizartean, politikan eta kulturen duten eragina

• **Daniel Bejarano**

Ojo al Sancocho zinemaldia (Bogotá, Kolonbia)

13:45 Herritarren Telebista, telebista demokratizatzeko proposamena

• **Carlos Cárdenas**

TV Culturaren presidentea (Peru)

14:00 Atsedena

16:00-19:00 Mahai ingurua

Dokumentalisten eginkizuna kultura aniztasuna babesteari begira

• **Leiqui Uriana**

Venezuelako Wayuu herria. "Gizakia izatea" lanean Wayuu herriari dagokion atalaren egilea eta herri agintaria.

• **Ismael Cubero**

Dokumentalista, "Gizakia izatea" lanean Dominikar Errepublikari dagozkion atalen egilea eta Puerto Ricoko burujabetasunaren aldeko mugimenduaren kultura kudeatzailea (Puerto Rico).

• **Marina McCartney**

"Gizakia izatea" lanean Samoari dagokion atalaren egilea eta Produkzioan Masterduna (Auckland, Zeelanda Berria)

• **Claudia Alves**

Dokumentalista eta Regoufe atalen egilea (Portugal)

• **Sreya Chetterjee**

Dokumentalista eta "Gizakia izatea" lanean Kalkutari dagokion atalaren egilea (Kalkuta, India)

• **Thais Taverna**

"Gizakia izatea" lanean Madrilgo Rastroari dagokion atalaren egilekidea (Brasil)

Moderatzailea

KCD Kultura, Communication y Desarrollo

19:30 "Gizakia izatea" sortaren "Mantenua" dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia

UPV/EHUko Bizkaia Aretoa, Mitxelena gela (Abandoibarra etorbidea, 3) SARRERA DOHAIN

Martxoak 7, asteazkena

"Begiratzeko ikasi" dokumentalei buruzko lantegia

Emalea

• Russell Porter

Kubako San Antonio de los Bañosko Zine eta Telebista Eskolaren Dokumentalen arloko katedraren zuzendaria
Laguntzaileak: "Gizakia izatea" dokumental sortaren grabazioan esku hartu zuten ikasleak

10,00-14,00

-Dokumentalen narratibari buruzko sarrera

-Bizitzaren mapa

-One to One motako elkarrizketen teknikak lantzeko ariketak

16,00-17,30

Elkarrizketen grabazioa

17,30-20,30

Filmaturiko materialaren edizioa

Martxoak 8, osteguna

9,00 "Begiratzeko ikasi" lantegiaren ikasleek egindako dokumentalen emanaldia eta esperientzia honi buruzko gogoeta

10,30 Atsedena

11,00 Lan mahaia

"Gizakia izatea" egitasmoaren erronka berriak

13,00 Amaiera ekitaldia